# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

**792**

AGINDUA, 1989.eko martxoaren 14ekoa, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailarena, Autonomi Arazoen Jarraipenerako eta horien Koordinaketarako Batzordearen iharduna araupetzen duena.

Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailaren egitura organikoa ezartzen duen apirilaren 19ko 89/1988 Dekretuak, 10. ataleko hirugarren parrafoan, Autonomi Arazoen Jarraipenerako eta horien Koordinaketarako Batzordea sortzea aurrikusten du.

Aipatu manua garatua nahi da agindu honen bidez, Dekretu horretako Azken Xedapenetatik Lehenengoan horretarako emandako eskumenaren arabera. Aurrikuspen hori betetzea, eta ez besterik, da agindu honen xedea, Batzordearen ihardunik eta onena berma dezaten erizpideak, formalismoaren aurkakoak eta ihardunaren malgutasunari buruzkoak alegia, erabiliz horretarako.

Hori horrela, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailaren egitura organikoari buruzko apirilaren 19ko 89/1988 Dekretuko 10.3 atalean xedatutakoa bete asmoz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.* Estatuak eta gainerako lurralde erakundeek emandako xedapen eta ekintzen jarraipena egitea eta alorkako lankidetzari buruzko gaiak, bai lege- zein ekonomi-ikuspegitik, lantzen lagundu asmoz, Autonomi Arazoen Jarraipenerako eta horien Koordinaketarako Batzordea sortzen da, horren xede diren gaiei buruz ager daitezen arazoen topaleku eta ezagupenleku izango dena.

*2. atala.* Honako kide hauek osatuko dute Batzordea:

1. Batzordeburua. Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Saileko Lege Erregimeneko Zuzendaria.

2. Batzordeburuordea. Ogasun eta Finantza Saileko Kupo eta Finantza Ekarketen Zuzendaria eta Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Saileko Eskualdaketen Zuzendaria. Ordezkapenik gertatzekotan, emandako hurrenkeraren araberakoa izango da.

3. Teknika Kabineteetako arduradunak edo, behar balitz, Sail bakoitzeko Lege Zerbitzuetako arduradunak, horietako bakoitzaren ordez.

4. Idazkari lez, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Saileko Lege Erregimen eta Autonomia-Garapen Sailordetzari atxikitako letratu bat.

5. Batzordeburuak dei egindako edonor joan daiteke Batzordearen bileretara.

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

**792**

ORDEN de 14 de Marzo de 1989, del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, por la que se regula el funcionamiento de la Comisión de Seguimiento y Coordinación de Asuntos Autonómicos.

El Decreto 89/1988 de 19 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico prevé, en su artículo 10 párrafo tercero, la creación de una Comisión de Seguimiento y Coordinación de Asuntos Autonómicos.

Se trata, en la presente orden, de desarrollar el citado precepto, de conformidad a la habilitación conferida en la Disposición Final Primera del antedicho Decreto. La Orden cumple con tal previsión, limitándose a un desarrollo mínimo, en función de criterios de antiformalismo y flexibilidad funcional, que garanticen el mejor funcionamiento de la Comisión.

En su virtud, para dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 10.3 del Decreto nº 89/1988, de 19 de abril, sobre estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* A fin de coadyuvar al seguimiento de las disposiciones y actos emanados del Estado y demás entes territoriales, y al tratamiento de cuestiones relativas a la cooperación sectorial, tanto en su vertiente jurídica como económica, se crea la Comisión de Seguimiento y Coordinación de Asuntos Autonómicos, como centro de encuentro y conocimiento de cuantas cuestiones se susciten en relación con las materias que constituyen su objeto.

*Artículo 2.–* La Comisión estará compuesta por los siguientes miembros:

1. Presidente. El Director de Régimen Jurídico del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico.

2. Vicepresidentes. El Director de Cupo y Aportaciones Financieras del Departamento de Hacienda y Finanzas y el Director de Transferencias del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico. Produciéndose por este orden la sustitución del Presidente cuando así proceda.

3. Los responsables de Gabinetes Técnicos o, en caso, de los Servicios Jurídicos de cada Departamento en representación de cada uno de ellos.

4. Actuará como Secretario un Letrado adscrito a la Viceconsejería de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico.

5. A las sesiones de la Comisión, podrá asistir cualquier otra persona convocada por su Presidente.

*3. atala.* 1. Estatuko zein Lurralde Historikoetako Agintaritzaren Aldizkarietan argitaratutako arauak eta ekintzak aztertuko ditu Batzordeak bilera bakoitzean, aurreko bilera-egunetik hasi eta dagokion egunerarteko epealdia kontutan hartuko dela horretarako.

Konstituzioari buruzko eta Elkartearen agintepide-eremuari buruzko erizpideak hartuko ditu kontutan azterketa horrek.

2. Horrez gain, erakundeen arteko lankidetza politikaren garapenari buruz eman daitezen arazoak ere aztertuko ditu Batzordeak, Alorkako Konferentziei eta Lankidetzarako Bitariko Baliabideei dagokienean bereziki, ekonomi- zein agintepide-alderdiei buruzkoak hain zuzen ere.

*4. atala.* Bi asterik behin eta Batzordeburuak erabaki dezanean bilduko da Batzordea.

Batzordearen bilerak gauzatzerakoan erabiliko diren erizpideak formaltasun eza eta iharduketaren malgutasuna izango dira; argitalpen egunaren araberako gaiez gain, eta bere kideetariko batenbatek proposamena egin ondoren, duten aparteko presatasuna edo korapilotasuna kontutan izanik berehala aztertzea eskatzen duten gaiak ere ikusiko dira.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

2. ataleko 3. zenbakian agindutakoa bete ahal izateko, xedapen horrek aipatzen dituen ordezkariak izendatuko dituzte Sailetako titularrek, Agindu hau argitaratutako egunetik kontatzen hasi eta 15 eguneko epearen barruan.

Epe hori amaitu ondoren, Batzordearen lehenengo bilerarako dei egingo da; bilera hori, aurreko parrafoan aurrikusitako izendapenen bat izandako azken egunean hasi eta hurrengo 15 eguneko epearen barruan gauzatu beharko da derrigorrez.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunean berean hartuko du indarra Agindu honek.

Gasteiz, 1989.eko martxoak 14.

Lehendakaritza, Zuzentza eta
Autonomia-Garapen Sailburua,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

*Artículo 3.* 1. En cada sesión, la Comisión examinará las normas y actos publicados en los Boletines Oficiales, tanto del Estado como de los demás Entes Territoriales, en el periodo transcurrido desde la anterior sesión hasta la fecha de que se trate.

Dicho examen, atenderá, en especial, a criterios de constitucionalidad y respeto al ámbito competencial autonómico.

2. Además, la Comisión examinará cuantos asuntos se susciten en relación con el desarrollo de la política de colaboración institucional, y, en particular, cuanto haga referencia a las Conferencias Sectoriales y los Instrumentos Bilaterales de Cooperación, tanto en su vertiente económica como en la competencial.

*Artículo 4.*– La Comisión se reunirá cada dos semanas y siempre que así lo disponga su Presidente.

Las sesiones de la Comisión responderán, en su desarrollo, a los criterios de máxima flexibilidad funcional y antiformalismo, ocupándose, a propuesta de cualquiera de sus miembros, además de los asuntos que procedan en virtud de su fecha de publicación, de aquellos otros que requieran atención inmediata por razón de su especial urgencia o complejidad.

DISPOSICION TRANSITORIA

Al objeto de dar cumplimiento a lo prescrito en el nº 3 del artículo 2º, los titulares de los distintos Departamentos nombrarán los representantes a que se refiere dicha disposición en el plazo de 15 días a contar desde la publicación de la presente Orden.

Al término de dicho plazo se procederá a la convocatoria de la primera reunión de la Comisión, que deberá, forzosamente, celebrarse en los 15 días siguientes al último en el que hubiese recaido algún nombramiento de los previstos en el párrafo anterior.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 1989.

El Consejero de Presidencia, Justicia
y Desarrollo Autonómico,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

## LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

**793**

**64/1989 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, gizarteko larrialdi egoeretarako diru laguntzak arautzen dituena.**

Gizarteko larriune egoerak biguntzera bideratutako diru laguntzen egitarauen beharrizana errealitatetik bertatik sortzen da, errealitate hori azken urteotan ekonomi krisialdiaren eraginez eta ondorengo langabezia gehitzearekin larriagotua.

Metatutako pobrezia egoerak, oinarrizko premiak betetzeko beste baliapide dituzten taldeetan ere agertu

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

**793**

**DECRETO 64/1989, de 21 de Marzo, por el que se Regulan las Ayudas Económicas a Situaciones de Emergencia Social.**

La necesidad de programas de ayudas económicas destinadas a paliar situaciones de emergencia social nace de la realidad contrastada y agravada en estos últimos años por la crisis económica y el incremento consiguiente del paro.

Situaciones de pobreza de acumulación pueden presentarse incluso en colectivos con recursos suficientes